
2.4. TXERTOEN ERREGISTROAK

Txertoa eman ondoren, **beti erregistratu behar da** txertoa hartu duen pertsonaren **historia klinikoan, eta** txertoa hartu ondoren pertsonari ematen zaion **txertaketa-txartel edo -agirian**.

BIZITZA GUZTIAN ZEHAR DA BALIOZKOA TXERTAKETA-HISTORIA, ETA PERTSONAK BIZITZAKO ETAPA GUZTIETAN HARTZEN DITUEN TXERTO GUZTIAK AGERI BEHAR DUTE HISTORIA HORRETAN: HAURTZAROKOAK, ESKOLAKOAK, LAN-GARAIKOAK, ETAB.

Oinarrizko prozedura da txertoaren erregistroa, hauek egiteko:

- Pertsona bakoitzaren txertaketa-historia jakiteko.
- Txertoen estalduren gaineko informazioa eskuratzeko.
- Txertorik hartu gabeko edo txerto guztiak hartu gabeko pertsonak identifikatzeko.
- Txertaketa-programen eragina ebaluatzeko.
- Agerraldiak kontrolatzeko informazioa lortzeko.
- Txertoak egoki kudeatzeko informazioa lortzeko.

Informazio hau jaso behar du **txertoaren erregistroak**:

- Txertoa hartzen duen pertsonaren izen-abizenak.
- Jaioteguna.
- Sexua.
- Txertoa zer zentrotan eman den.
- Helbidea.
- Txertoa eman duen profesionalaren elkargo-zenbakia.
- Txertoa zer egunetan eman den.
- Txerto mota (antigenoak, izen komertziala eta laborategia).
- Dosi kopurua.
- Lotea.

Txertoen gaineko informazioaren erregistroa OSABIDEn

Modu sistematikoan erregistratu behar da pazienteek hartutako txertoen gaineko informazio guztia, zentroek erabilitako Osabideren formularioan. Pertsonak hartutako txertoen gaineko datuak eskuratzeko bidea da, eta hartutako txerto guztiak adierazi behar ditu, bai gure erkidegoko sistema publikoan eman zaizkienak, bai beste erkidego batzuetan eta zentro pribatuetan eman zaizkienak. Txertaketa-kartila edo -agiria ikusita, pertsonaren txertaketa-historia Osabiden erregistratuta ote dagoen egiazta dezakegu. Ez badago erregistratuta, agirien bidez justifikatuta dakarzkien txertaketa-datuekin osatu behar dugu pertsona horren historia.

Osabideren formularioak beti jaso behar ditu POD (Pazientearen Oinarrizko Datu) hauek txerto guztietarako: txertoaren PODak eta txertoaren lotearen PODak, eta beharrezkoa baldin bada, arrisku taldea.

POD bat dago txertoen aurkezpen bakoitzerako, bai egungo eta garai bateko txertoen aurkezpenetarako, bai beste herrialde batzuetako txertoetarako.

Antigenoak konbinatzen dituzte zenbait txertok (gaixotasun baten baino gehiagoren aurkako txertoak ematen dira aurkezpen berean). Aurkezpen horietako bakoitzak bere POD propioa du. Dagokiona hautatuko da, dagokion antigenoen loturarekin.

Txertoaren PODak har ditzakeen balio batzuen definizioa:

KONTRAINDIKAZIO ETENGABEA: Txerto-dosi hori ematea indikatuta ez dagoen kasu haientarako bakarrik (kontraindikazio medikoa).

UKATUA: pertsonak dosia ez hartzea erabakitzen duenean.

APARTEKO/OROITZAKO DOSIA: txertoa lehen aldiz hartu ondorengo dosiak dira, baldin eta, egutegian aurreikusitako seriea osatu ondoren, eta arrazoiak arrazoi, dosi gehiago hartu baldin badira. Apartekoak dira, era berean, egutegi sistematikotik kanpo emandako txertoak (esaterako, haurdunei dTpa txertoa ematea).

Garrantzitsua: erabilitako formularioan eguneratuta izan behar dute txertoen PODak.

Txerto beraren dosi bera behin bakarrik erregistratu behar du profesional bakar batek (txertoa eman duenak).